



## ALKATETZA DEKRETUA

**ESPEDIENTEA:** 2025ILAE0002

**TITULARRA:** ARETXABALETAKO UDALA

### ERABAKIA

Toki-arabidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua ematen dizkidan eskuduntzez baliaturik, honako hau erabakitzen dut:

#### I 25/00096 zenbakidun Alkatetza Dekretua.-

**Lehena.-** Hirigintzako teknikariaren lanpostua bitarteko funtzionarioz hornitzeko oinarri arautzaileak onartzea (I. eranskina) eta deialdia egitea.

**Bigarrena.-** Lanbiden lan-eskaintza argitaratzea.

#### I. ERANSKINA

#### Hirigintzako teknikariaren lanpostua bitarteko izaeraz betetzeko deialdia eta oinarriak

##### Lehena. Lanpostuaren ezaugarriak

Bitarteko langileen bidez betetzeko merezimendu lehiaketarako deialdia egiten da:

- **Lanpostua:** Hirigintzako teknikaria
- **Taldea:** A2.
- **Destino osagarria:** 21
- **Berariazko osagarria:** 21.297,79 euro/urtean.
- **Iraupena:** Bajak iraun bitartean.
- **Lanaldia:** Osoa.

##### Bigarrena.- Funtzioak


Zereginak batez ere ondorengoak izango dira:

- Obra baimenak
- Jarduera baimenak
- Proiektuen azterketa
- Lizitazioak

##### Hirugarrena.- Izangaien baldintzak

a) 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

b) Espainiar nazionalitatea izatea.

<b>Sinatzailea</b>	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria
	<b>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiatzotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</b> <a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAFJ8FC.FGWE">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAFJ8FC.FGWE</a>



c) Titulazioa: Arkitekto Teknikoa.

Atzerrian titulua lortu duten izangaiak dagokien homologazio kredentziala eduki beharko dute, edo, hala badagokio, baliokidetasun ziurtagiria.

d) Hizkuntza eskakizuna: PL 3 (C1) hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea. Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko, apirilaren 18ko 65/2003 Dekretua hartuko da kontuan zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko Dekretua.

e) Bete beharreko lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea, eta eginkizun horiek betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea.

f) Diziplina espediente bidez baztertuta ez egotea herri administrazioen ez autonomia erkidegoetako organo konstituzionalen edo estatutuen arabeko organoen zerbitzutik, eta ez egotea epai bidez erabat edo bereziki desgaituta enplegu eta kargu publikoetan aritzeko ez funtzionario kidego edo eskalan sartzeko, ez eta, lan kontratadun langileen kasuan, baztertu edo desgaitutako lanpostuan egiten zituzten antzeko egitekoetan aritzeko ere. Desgaituta edo horren pareko egoera batean ez egotea, eta beste estatu batean egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.

g) Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko auziren batean sartuta ez egotea.

#### **Laugarrena.- Eskaera aurkeztea**

Lehiaketan parte hartzeko Lanbiden izena eman beharko da 2025eko otsailaren 7 arte eta ordurako merezimenduak Aretxabaletako Udalaren egoitza elektronikokoan aurkeztu beharko dira.

Hiru egun baliouduneko epean, onartutakoen eta baztertutakoen, eta aurkeztutako merituen behin behineko balorazioaren ebazpena argitaratuko da udaleko iragarki oholean eta Aretxabaletako Udalaren egoitza elektronikokoan argitaratuko da. Baztertutakoen kasuan baztertzearren arrazoia adieraziko da.

Baztertutako hautagairik ez bada edo, egon arren, zerrenda jendaurrean jarri eta hiru egun naturaleko epean alegaziorik aurkeztu ez bada, ebazpena behin betiko bihurtuko da automatikoki.

#### **Bosgarrena.- Epaimahaia**

Lehendakaria:

- Ibai Larrabe Sangroniz

Mahaikideak:


- Belen Zoilo Sanchez
- Amaia Sologaitoa Agirre
- Alex Garai Barrachina

Idazkaria:

- Nahia Agirre Alegria

Epaimahaiak, bidezko baderitzo, aholkulari adituen laguntza eska dezake edozein probatan.

Epaimahaiakideek ezingo dute esku hartu, eta Alkate-Lehendakariari horren berri emango diote, baldin eta 40/2015 Legeko (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea) 23. artikuluan aurreikusitako

<b>Sinatzailea</b>	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria
	<b><i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i></b> <a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAFJ8FC.FGWE">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAFJ8FC.FGWE</a>



egoeretakoren bat gertatzen bada. Era berean, errefusa gai izango dira, Lege bereko 24. artikulua arabera.

Epaimahaikide guztiek izango dute hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea, Epaimahaiko idazkariak izan ezik, hark ez baitu bozkatzeko eskubiderik izango. Bestalde, epaimahaia ezingo da eratu eta aritu Lehendakaria eta Idazkaria eta epaimahaikide titularren edo ordezkoen erdiak etorri ez badira.

### **Seigarrena.- Hautaketa prozesuaren deskribapena**

#### **Lan esperientzia. (gehienez ere, 20 puntu)**

Atal hau 20 punturen gainean kalifikatuko da gehienez.

- Administrazioan, A2 azpitaldean, arkitekto tekniko bezela egindako zerbitzuak: gehienez ere, 20,00 puntu, 0,25 hileko.

- Enpresa pribatuan eta/edo lanbidearen jardun librean emandako zerbitzuak, arkitekto tekniko bezala eerdiesitako lan esperientzia: gehienez ere, 10,00 puntu, 0,15 hileko.

Lan-eskarmentua batzeko egindako lanaldiak batuko dira eta, behin hori egin ondoren, hil bat baino gutxiagoko frakzioak ez dira kontuan hartuko. Hori egiteko hiletzat 30 egun natural hartuko dira. Era berean, adierazitako lan-eskarmentua lanaldi osokoa ez denean koefiziente zuzentzailea aplikatuko zaio.


Hautagaiak senitartekoak zainzeagatiko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia egoeran egon diren denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta lanekoaren kontziliazio erantzukidea erraztea, eta langile publikoek generoindarkeriagatiko baimenak erabili dituzten denbora baloratuko da.

### **Zazpigarrena.- Gorabeherak**

Epaimahai kalifikatzaileak eskumena dauka sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketaren martxa ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta hemen aplikatu daitezkeen arautegi osagarrian xedatu ez den kasuetarako.

### **Zortzigarrena.- Inpugnazioak**

Deialdi hau, honen oinarriak eta hauetatik eta epaimahaiaren jardueratik erator daitezkeen egintza administratiboak inpugnatu ahal izango dituzte interesatuek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako epe eta moduan.

<b>Sinatzailea</b>	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria
	<b><i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i></b> <a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAFJ8FC.FGWE">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAFJ8FC.FGWE</a>